

Xagun Artea

2007ko abuztuaren 23a

Xagun aldizkaria

20. alea

Andramaritan jende asko ibili da, eguraldiak lagundu ez arren



Hiru eguneko Andramari festak umore onean eta giro ederrean joan dira. Eguraldiak ez du nahi hainbeste lagundu egun batzuetan, baina horrek ez du eragotzi jendea erruz gerturatzea Zeraina. Hiru egunez, denek gozatzeko aukera izan dute, eta orokorrean, baita jendeak aprobetxatu ere!

Andramari bezperan sekulakoak egin zituzten herriko haur eta gaztetxoek. Puzgarriak, bazkaria, jolasak eta mozorroak eduki zituzten. Eta benetan ikusgarria izan zen umeen jaialdia. Ondoren, urteroko txekor-jateak eta

sagardo-edateak jende andana bildu zuen; eta sagardoa edateko gau-giro ederra egon zen gainera.

Andramari eguna ere giro ederrean joan zen. Aizkora-saioak sekulako jende mordoa bildu zuen. Eta ondoren euria izan zuten etsai dantzariak. San Roke egunean ere eguraldia duda-mudakoa izan zen, eta herri-kirolak frontoian egin behar izan ziren. Baina azkenean, herri-afaria plazan egin zen gaueko freskuran.

Hiru eguneko festetan, benetan herri-giro baketsu eta alaia egon da Zerain aldean; eta hori poztekoa da!

Kultur astea eta azoka ekologikoa

Iraila iristear da eta irailarekin batera, Zerainen kulturarentzat badago tartea. Aurten hilaren 10etik 16ra izango da kultur-astea. Aurreko asteburuan, bertso-afaria eta hirugarren adinekoen eguna egingo dira. Irailaren 16an berriz, Gipuzkoako nekazaritza ekologikoaren XIII. azokan, zer ikusia eta non gozatua izango da. Hemen aurrera-tzen dizuegu egun horietan izango diren ekintzen eta festen berri. Datozen egunetan, eskuko egitarauetan zehaztuko da guztia.

Irailak 8, larunbata

Egunean zehar, herritarrek Aizpeko minen ingurua eta jarri berri diren ibilbideak ikus ditzaten, irteera egingo da. Guztiek batera, Mandioko gidariak lagun, minetara joango dira eta han aho-goxagarririk ere izango da.

Iluntzean, azken urteotan ohi den moduan, bertso-afaria egingo da plazan. Txartelak laster jarriko dira salgai Mandion.

Irailak 9, igandea

Hirugarren adinekoen eguna izango da. Eguerdian Meza Nagusia izango dute Etxeberria eta Agirre bertsolariak eta herriko koruak lagunduta. Bazkaria Ostatu jatetxean izango da; eta ondoren, bertsolariak saioa egingo dute.

Irailak 10-14

Astearen bost egunetan, iluntzeko 8:30etan hitzaldiak izango dira Kultur Etxean. Ostiralean mendiarekin lotutako emanaldia izango da.



Astean zehar hitzaldiak izango dira. E. M.



Bertso-afaria plazan egingo da eta sardina erreak jateko aukera izango da. E. MENDIZABAL

Irailak 16

Gipuzkoako nekazaritza ekologikoaren XIII. azoka egingo da. Goizean ohiko moduan egingo da azoka, 9etatik 14etara. Nekazariak euren produktuak saltzen arituko dira eta tailerak eta ikuskizunak ere izango dira. Aurtengo nobedadea, zuhatza nola

egiten den ikusteko aukera izango da. Arratsaldean, erromeriaz gain, sekulako herri-kirol jaialdia egingo da aurten, punta-puntako aizkolariekin.

Azoka antolatzeke bilera

Abuztuaren 30ean, osteguna, arratsaldeko 7etan Kultur Etxean.



Eguraldiak laguntzen badu, azokara jende dezente hurbilduko da. E. MENDIZABAL



Erraberoa

"Esne jaitsi berria, egosi gabea, oraindik bere epelean dagoenean". Hala definitu du Elenak *erraberoa*. Adiera hori ematen omen zaio Zerainen. Arrazoi du noski: hiztegiek ere antzeko gauza diote, adierari dagokionez. Ikus dezagun, esate baterako, Orotariko Euskal Hiztegiak zer dioen *errabero*, *errebero* edo *errobero* sarreran: "leche recién ordeñada". Hori baino gehiago ere esaten digu, berez, Mitxelenaren hiztegi handiak. Bi gauza, konkretuki:

Batetik, *errabero*, *errebero* edo *errobero* delakoa Euskal herri osoko hitza dela: han-hemengo euskaldun guztien ahotan erabili ohi den edo erabili izan den hitza, alegia. Batzuetan alde handia egon ohi da hitzetan, euskalki batetik bestera: hemen *erori* esaten dena han *jausi*, hemen *maiz* esaten dena han *usu*, hemen *erantzun* dioguna han *arrapostu*, eta abar. Kasu honetan ez dago horrelako alderik. Bide beretik dabil hitza, axaleko hots-aldiera salbu, Euskal herri osoan. Hots-aldiera bera ere ez da oso-oso berezia, batetik bestera: *luzatu* / *luze-tu*, *bidagurutze* / *bidegurutze*, *osatu* / *osotu*, *erokeria* / *erakeria*,... bikoteen modukotzat har liteke, nahiz eta errebero hori esplikatzeko zailago izan. Kasu honi dagokionez, Gipuzkoako leku gehienetan esaten (edo esan izan) dute *errebero*. Beste eskualde edo leku batzuetan *errobero* erabiltzen da eta eskualde gehienetan, itxuraz, *errabero*. Azken modu honetan esaten da (edo esan izan da) Bizkaian, bizkaieraz egiten den Gipuzkoan (ia Debarro osoan), Basanafarroan, Baztan aldean, Zaraitzun, Zuberoan eta Erronkarin. Zerainen ere bai, Elenaren esanean.

Bestetik, Aizkorpe honetan gipuzkeraz hitz egin arren bizkaierak duen presentzia nabarmena da. Oraingo honetan ere bai. Gipuzkoako forma hedatuena *errebero* izan arren, Bizkai aldean erabiliagoko *errabero* forma nagusitu izan da hemen: Zerainen seguru, Elena bera lekuko, eta Aizkorpe osoan ere bai agian. Ez dago horrekin zer harritu: lehen ere inoiz aipatu izan dugunez, Aizkorpe



honetan zabaldu samarrik daude bizkaierazko moldeak, aspalditxodanik, eta *errabero* hori ere talde horretan sartzekoa izan liteke. Bertako artzainek garai batean Bizkai aldera izan ohi zuten negu-parteko isuriaren errainu izan liteke, Zegamatik Mutiloara artean bizkaierako moldeak duten bizi-indar berezi hori. Hala aditu izan dut inoiz kidetasun hori azaltzen (Fernando Mendizabali entzun nion lehenengoz aipamena, oker ez banago), eta baliteke esplikazio hori funtsean zuzen ibiltzea.

Zer pentsatua ere ematen du, bestalde, *errabero* hitza Zerainen galtzen ari dela jakiteak. Artzain- eta baserri-giroko hitza da hori, bete-bete. Herri gutxi dira Gipuzkoan, bestalde, Zerain bezain baserri- eta artzain-giroko. Hemen galtzen ari baldin bada hitza, atera kontuak beste herrietan zer gertatzen ari izan litekeen. Betikora gatoz: hitzak eta hizkuntza ez dira airean bizi, giza artean erroturik baizik. Gizajendeak, bere eguneroko mintza-jardunean, osatzen dituen harreman-sareetan eta aurrez aurreko hitz-aspertuetan bilbatzen, garatzen eta sendotzen da hizkera, eta belaunez belaun partez edo osoz transmititzen. Eguneroko bizimoduak sendo markatzen du, hori dela-eta, zer esaten den, noiz-non eta nola. Baserri-giro tradizionala eta behinolako artzain-kultura galtzen edo bestelakotzen ari diren

neurri berean ari gara *errabero* moduko hitzak ere bakantzen, baztertzen eta, hainbatean, galtzen. Hori da hizkuntzen bizilegea, lautatik hirutan, eta gure euskara ez da salbuespen. *Tetrabrik*-etik edo bestelako (kristalez baino sarriago plastikoz) egindako ontzitik hartzen dugu esnea, gaurko gazte guztiek eta zahar gehienok; marmitatik ez baina hozkailutik hartzen dugu; jetzi berria ez baina ontziratatu zenetik egunak edo asteak berekin dituen; hartu aurretik surtan berotu behar izaten da maiz, hotz-hotza egon ohi baita. Ez dago hor *erraberoaz* jarduteko leku handirik. Halatsu gertatzen da baserri askotan ere, oker ez banago: baserri-etxe askok ganadua kendua du dagoeneko, eta artzantzan ari diren herritarrek gutxienak dira Zerainen ere. Ez dago zer harritu, beraz, Zeraingo haurrek eta gazteek (gero eta gazte gehiagok, itxuraz) *erraberoa* zer den ez badakite. Etxean behirik jekten ez bada nekez eskainiko die inork halakorik, eta eskola-liburuetan oso bakan aipatzen bada hitz hori, nondik ikasiko dute *erraberoa* zer den?

Egingo nuke, halere, erabat ez dela hitza galduko euskara bizirik den artean. Beti izango da, gutxiasko, esnea etxeko ukuilutik ekarriko duenik. Harentzat *erraberoa* hitz argia izango da gero ere: *errapea* bezain argia, esate baterako.

Mikel Zalbide



Xagu-txoko



Babesetik

UZTAILA	ast	ast	ast	ost	ost	lar	iga
							1
Euria (l/m)	GUZTIRA: 36 l						
C° altuena	ALTUENA: 37°						
C° baxuena	BAXUENA: 13°						
	2	3	4	5	6	7	8
Euria (l/m)	0	1	2,5	0	0	3	4
C° altuena	22	24	20	22	24	24	21
C° baxuena	15	14	16	14	14	19	17
	9	10	11	12	13	14	15
Euria (l/m)	0,25	1,75	0,25	0	0	0	0
C° altuena	20	20	20	24	31	36	35
C° baxuena	17	14	15	15	17	21	24
	16	17	18	19	20	21	22
Euria (l/m)	2	0	2	0	0,75	4,5	0
C° altuena	37	30	25	20	23	24	23
C° baxuena	19	20	18	17	15	15	14
	23	24	25	26	27	28	29
Euria (l/m)	12	1	0	0	0	0	0
C° altuena	31	25	25	31	29	31	26
C° baxuena	19	17	13	13	16	18	20
	30	31					
Euria (l/m)	0	0					
C° altuena	32	30					
C° baxuena	20	20					

Euri gutxi, beti busti

Aurtengo uda nola doan ikusteko, ez dago uztaileko datuei begiratzea besterik. 31 egunetatik 14tan egin du euri-apurren bat. Baina oso apurra izan da, guztira, 36 litro baino ez baititu egin. Eta temperaturei dagokierenez ere, ba antzeko: 16 egunetan termometroak ez dira 25 gradutik pasa. Hala ere egunik beroenean, 37 gradu harrapatu dira. Uztaile lehorrak, freskoa eta uda-giro on asko gabekoa joan da.



Irailaren 1en egingo da Arantzazurako erromesaldia



Gain-gainean da berriz ere, aspalditik egiten den Arantzazurako urteroko peregrinazioa. Irailaren 1en izango da eta irteera goizeko 8etan egingo da plazatik. Ondoren batzuk Aldaolara joanda eta besteak bertatik

oinez, Urbiara joango dira. Han bazkaldu eta ondoren Arantzazura jaitziko dira. Itzultzeko autobusa egongo da urtero bezala. Joan nahi dutenek izena Xanti Muñoari eman behar diote abuztuaren 29a baino lehen.

Ikasturtea irailaren 10en hasiko da Herri eskolan

2007/2008 ikasturtea gain-gainean dugu. Haurrek oporrak ia amaitzeaz dituzte, eta laster itzuli beharko dute eskolara. Aurten iaz baino haur bat gutxiago izango da Zeraingo eskolan. Hiru ikaslek amaitu dute Zeraingoa eta aurten bi sartuko dira. Beraz, guztira 9 ikasle arituko dira irailaren 10etik aurrera Zeraingo Herri eskolan. Aurreskolan berriz, astebete lehenago hasiko dira.

Ingeleseko klaseak martxan dira

Aurten ere, ingeleseko klaseak jarriko dira ikasturterako. Ordiziako INTERLANG akademiako irakasle bat etorriko da aurten ingeleseko klaseak ematera. Interesatuta daudenek udalletxean izena eman edo informazio gehiago eska dezakete. Klaseak irailaren erditik aurrera hasteko asmoa dago.